

## 14 /2019 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2019KO URRIAREN 28AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Saioa Tolosa Zubelzu (EH Bildu taldea)

Esther Iztueta Zelaia (EH Bildu taldea)

Jokin Tolosa Zabala (EH Bildu taldea)

AMAIA URKOLA AROZENA (EH Bildu taldea)

AITZOL ESNAOLA ZUBELDIA (EH Bildu taldea)

Rafael Uribarren Axpe (EAJ taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

JAIME PEON ORMAZABAL (EAJ taldea) .

##### IDAZKARIA:

Itziar Azurza Sorrondegui

Anoetako udaletxean, 2019ko URRIAREN 28an arratsaldeko zazpitan eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkatearen lehendakaritzapean, eta Itziar Azurza Sorrondegui andrea aritu da idazkari lanetan.

#### 1.- 2019KO IRAILAREN 30 ETA URRIAREN 18AN OSPATURIKO BILKURAREN AKTUA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2019ko irailaren 30 eta urriaren 18an ospaturiko bilkuren aktak aho batez onartu dira.

#### 2.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2019KO IRAILAREN 16TIK URRIAREN 14A BITARTE, 319 BIS ZENBAKITIK 378 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2019ko irailaren 16tik urriaren 14a bitartean izaniko ebazpen berri eman dira eta udalbatza jakinarekin gainean geratu da .

#### 3.- GIPUZKOAKO GARRAIO PARZUERGOA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMEN EGUNERATZEKO PROPOSAMENA.

Anoetako Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren artean Ud

Erroldaren datuak egiaztatzeke hitzarmena eta eranskina berritzeko proposamena aurkeztu da.

Partaideek aho batez onartu dute:

Lehen.- Aipaturiko lankidetzak hitzarmena eta bere eranskina onartzea, akta honi 1. Eranskin moduan atxikita jasoz.

Bigarrena.- Alkate-Lehendakari jauna edo bere legezko ordezkariari ahalmena ematea akordioa burutzeko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

#### 4.- 2018 URTEKO KONTU OROKORRAREN BERRI EMATEA.

Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak, 2019ko urriaren 23an eginiko bileran, bere oniritziarekin eman zion 2018 ekitaldiko Kontu Orokorrari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3. artikuluan ezarritakoa betez jendaurrea jarri hamabost egunez; 2019ko azaroaren 25eko 225 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez.

Epe horretan, interesatuek erreklamazio edo oharra aurkeztu ahal izan zituzten Anoetako Udalaren Sarre Erregistro Orokorrean, bulego lanorduetan; ez da erreklamazio edo oharrik aurkeztu.

Alkateak 2018 ekitaldiko Kontu Orokorren berri eman ondoren bozketara eraman du.  
Aho batez onartu da.

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren erabakitzen da:

Lehen.- 2018 ekitaldiko Anoetako Udalaren Kontu Orokor propioa onestea.

Bigarrena.- 2018 ekitaldiko Anoetako Udalaren Kontu Orokorra, behin-betiko izaeraz onetsirik, Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea.

### **5.- 2020 URTEKO ORDENANTZA FISKALEN EGUNERATZEA.**

Peio Estanga Lasa Alkate jaunak eman ditu azalpenak, gaia ogasun batzordean urriaren 23an landu eta gero. Aldez aurretik Idazkari kontuhartzailearen txosten bat helerazi zaie zinegotziei gai hone inguruan.

**Lehenik**: HIRIGINTZA ARLOKO TASEN ALDAKETAK direla eta, hauexek dira proposamenak.

#### **1.- Tasak, Hirigintza Plangintza, Kudeaketa eta exekuzio arloko tresnak direla eta.**

- \*\* ekintza urbanizatzailearen programa ( PAU): .....2.000.-euro
- \*\* Xehetasun azterketa: .....2.200.-euro
- \*\* Urbanizazio proiektua:..... 2.200.-euro
- \*\* Birpartzelazio, kontzertazio proiektua:..... 2.500.-euro
- \*\* Plan partziala ( eta aldaketak): .....3.000.-euro
- \*\* Plan berezia ( eta aldaketak): .....3.000.-euro

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

#### **2.- Tasak: Eraikina lehen aldiz erabili edota abiatu ahal izatko aurretiazko berri emate edo komunikazioa edo adierazpen responsablearen kasuan.**

Hiru berrikuntzak hauek dira.

- \*\* etxebizitza bakoitzagatik: 125.-euro
- \*\* trasteleku bakoitzagatik: 25.-euro
- \*\* garaje bakoitzagatik: 75.-euro

Beste atalak berdin mantenduko dira.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

#### **3.- Tasak jarduera abiatu aurretik aurretik aurkeztu beharreko aurretiazko berri ematea edo adierazpen responsablea Euskadiko 3/98 ingurumen legeko II eranskinen "B" ataleko zerrendatutako kasuetan.**

Hauek dira aldaketak.

- Garajeak ( B zerrendako 5. atala) ..... 450.-euro
- Komertzioak edo dendak ( B. zerrendako 3. atala) .....400.-euro
- Zerbitzuak ( B zerrendako 6, 7 eta 13 atalak: haurtzaindegiak , irakaskuntza-akademikak edo zentruak, osasun zentruak , botikak, albutari-klinikak, bulegoak, ileapaindegiak, masaje zentruak, funerariak, hotelak, erresidentziak, zahar egoitzak, ostatu etxeak, aterpetxeak , tanatorioak krematorio gabeak .....600.-euro
- Industriak orohar ( B zerrendako 1, 2, 4 eta 14 atalak: energia elektriko ekoizpen-instalazioak, energia berriztagarria energia elektrikoan jaso eta eraldatzaileak diren instalazioak, 50kw-100kw tarteko potentziarekin; tailerrak, obradoreak, aroztegiak, kaldereriak, muntaiak, mekanizatuak, okindegia, pastelgintza-catering obradoreak,ezarritako potentzia guztira ( mekanikoa eta elektrikoa batera – argiteria kanpo-) 25 kw-tik beherakoa denean eta ekoizpen azalera 300 m2-tik beherakoa denean; erregai likido eta gaseosoak biltegitratzeko instalazioak, 50.000 litrotik beherako gaitasunarekin; bestelako jarduerak beti erabiltzen osasunean eta ingurumenean antzeko eragina sortaraziz gero .....800.-euro
- Nekazaritza eta abelzaintza jarduera txikiak, kortak edo ikuiluak, 20 abelburu handi baino gutxiago izaneko

gero eta txakurtegiak ( hazkuntza eta heziketa) 25 txakur baino gutxiago izanez gero, beti ere, lurzoru e  
hiritarrean edo landa lurzoruan edota hiri lurzoru industrialean kokatuta badaude ( B zerrendako 9. atala  
.....200.-euro

- Instalazio osagarriak ( B zerrendako 10,11 eta 12 atalak: transformazio edo eraldatze zentruak, informazio  
tratamendu eta komunikazio zerbitzuak – kalkulu zentruak, datu bankuak, irrati eta telebista errepikatzaileak,  
satelite bidezkoak, antenak, telefonia mugikorren guneak, informazioaren tratamendu elektroniko edo  
informatikoen zentrua, irrati-telefono edo telegrafiko guneak, irrati-telebista emisoreak, alarma kontrolak,  
zentralak , galdara –guneak, aire girotu instalazioak, hozkailu kamara instalazioak, osasun  
erradiodiagnostiko instalazioak – X izpiak-).....300.-euro
- Ostalaritza guneak ( B zerrendako 8 atala: ikuskizun publiko, aisialdiko jarduerak – lizentzia behar e  
badute- , jatetxeak, kafetegiak ) ..... 1.000.-euro

38/1999 legeak ( ley de ordenación de la edificación) 2.2. artikuluan, 2/2012 legeak (liberalizazio  
legeak) eta 20/2013 legeak ( merkatuaren bateratzearen legeak) ezarritakoaren arabera, merkataritza  
edo komertzial izaera duten jarduerak (dendek) eta zerbitzu batzuk, obra proiekturik behar ez duten  
obrak egin ditzakete jardueraren aurretiazko berri emate honen baitan.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

#### **4.- Tasal sailkatutako jarduera lizentzia Euskadiko 3/98 ingurumen legeko II Eranskineko O “A** **atalean zerrendatutako kasuetan**

- Erregai likido edo gaseosoen hornikuntza, instalazio edota banaketa guneak ( gasolindegia) ( B  
zerrendako 8 atala) .....800.-euro
- Biltegiak, merkataritza guneak edo komertzioak ( dendak), erakusketa guneak, toxikoak, arriskutsuak  
edota inflamableak diren produktu edo materialak badituzte 500 kg-tik gora bizitokien hiri lurzoruan edo  
1.000 kg-tik gora gainerako lurzoru motetan ( A zerrendako 9 atala)  
..... 700.-euro
- Ostalaritza, aisialdi edota ikuskizun publiko izaerako jarduerak ( A zerrendako 15 eta 16 atalak):
  - \*festa aretoak ( sala de fiestas) .....5.000.-euro
  - \*bingo-kasino aretoak .....15.500.-euro
  - \*dantza lekuak, diskotekak, gazteen dis..... 15.500.-euro
  - \* disko-pub, karaoke guneak, taberna bereziak, pub edo an.....8.000.-euro
  - \* kafetegiak , jatetxeak , tabernak edo antzekoak .....2.500.-euro
- Industria izaerako jarduerak orohar ( A zerrendako 1,2,3,4,5,6, 10,11, 12,13,14 eta 19 atalak): extrakzio  
jarduerak, nuklearrak, radioaktiboak, energia elektriko ekoizleak 100 kw-tik gora, tailer eta lantegi  
obradoreak , aroztegiak, kaldereriak, muntaiak, mekanizatuak, okindegi-pastelgintza-catering obradoreak  
ezarritako potentzia guztira ( mekanikoa eta elektrikoa batera – argiteria kanpo-) 25 kw-tik goragoko  
denean eta ekoizpen azalera 300 m2-tik goragokoa denean; hondakinak biltegitatu, balorizatu eta  
desagertzeko instalazioak, lur betelanak 500.000 m3tik gora eta urtebeteko epealditik gora, hondakin ure  
araztegiak, arrai-ekoizpen guneak, mataderoak , krematorioak.....  
1.000.-euro
- Nekazaritza eta abelzaintza jarduera txikiak, kortak edo ikuiluak, 20 abelburu handi baino gehiago izanez  
gero eta txakurtegiak ( hazkuntza eta heziketa) 25 txakur baino gehiago izanez gero, beti ere, lurzoru e  
hiritarrean edo landa lurzoruan edota hiri lurzoru industrialean kokatuta badaude ( A zerrendako 17. atala  
.....500.-euro
- Nekazaritza eta abelzaintza jarduera txikiak, kortak edo ikuiluak, 40 abelburu handi baino gehiago izanez  
gero eta txakurtegiak, edozelakoak, beti ere, bizitokien hiri lurzoruan kokatuta badaude ( A zerrendako 17  
atala).....700.-euro
- Erregai likido edo gaseosoak biltegitatzeko instalazioak, 50.000 litrotik goragoko gaitasunarekin, edozein  
lurzoru motetan kokatua (A zerrendako 9. atala ).....1.000.-euro

Jardueren azalera 100 metrotik goragokoa denean % 0,5 gehiago igoko da tasa.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

## **5.- Tasak Sailkatutako jarduera lizentzia gauzatu ondoren irekieraren aurretzako komunikazio edo berri ematea edota adierazpen responsablea.**

Jarduera-lizentzia eman eta inplantatu ondoren aurkeztu ohi du sustatzaileak. Udal aparejadorearekin ikuskaritza ( 3/98 legeko 64 artikulua) eta txostena behar dira ondoren, teknikariak aurretzako berri ematean edo adierazpen responsablearen ziurtagirian adierazitakoa benetan bete dela eta araudia finkatutakoari egokitzen zaiola egiaztatzeko (lizentziarik behar ez arren).

- 500 metrotik behera: 500.-euro

- 500 metrotik gora: 1.000.-euro

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Bigarren.-** BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOAREN ORDENANTZA, tasak era berri batez ezarriko dira. Jarraian atxikitutako testuan ageri den moduan, hain zuzen ere.

\*\* Elementuak hauetako edozein: hesiak ( vallas), andamioak, edukiontzia ( obra hondakinak edo materialak pilatzeko), aldagela-txabolak, konpresoreak, hormigoi makinak, plataforma igotzaileak, garabiak edo antzekoak, etab.

\*\* Bi tarifa:

a) Oinezkoen edota motordun ibilgailuen zirkulazioa ahalbideratzen bada: 0,20.-euro/eguna/metroa

b) Oinezkoen edota motordun ibilgailuen zirkulazioa eragozten bada: 0,50.-euro/ eguneko/ hilabetero

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Hirugarren.-** IBILGAILUEN ZERGAREN ordenantza dela eta, zehaztapen edo matizazio hauek argitzea proposatu da ordenantzaren testuan:

3.1.- hobariak ibilgailu elektrikoak eta hibridoak bost urtetan zehar mantenduko zaie.

3.2.- desgaitasun duten pertsonen ezarritako ibilgailuen gehieneko potentziaren muga ezarriko zaie familia ugariari .

3.3.- hobariak ezarriko zaizkie soilik Anoetako udalerrian erroldatuta dauden pertsonen . Alegia, ibilgailua Anoetan erroldatuta egon arren, jabea ez badago Anoetan erroldatuta ez zaio hobaririk ezarriko. Ibilgailu historikoen kasuan ere ezargarria da irizpide hau.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Laugarren.-** TERRAZEN TASA dela eta, zehaztapen edo matizazio hauek argitzea proposatu da ordenantzaren testuan:

5.1.- titularitate aldaketak ez dira kobratuko

5.2.- urte osoan zehar ez bada jarduera mantendu, tasa proportzionalki ezarriko da.

5.3.- terrazari lotutako jarduera nagusia legeztatu gabe badago edo legeztatu ezina bada ere, hirigintza legediaren ikuspegitik, espazio eta jabari publikoaren erabilera egiten den neurrian tasak likidatu eta ordaindu beharko dira.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Bosgarren.-** KULTURA ARLOKO TASAK direla eta, zera proposatu da:

- Kultur ikastaroen kasuan, hobarien kasuan 65 urtetik aurrera.

- Diru-sarrera baxuak dituzten erabiltzaile batzuk kuota herena ordainduko dute, edo kuota salbuespen egongo dira, gizarte zerbitzuetako txostenean hórrela proposatzen bada. Horretarako interesatuak gbizikidetzaren unitateko diru-sarreraren agiriak aurkeztu beharko ditu.

- Hobri bakarrik aplikatuko da, erabiltzailearentzako onena dena.

- Anoetan erroldatutakoek izango dute lehentasuna.

## AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

### **Seigarrena.-** KIROLDEGIAREN ERABILERAGATIK TASAK direla eta, Alkateak zera proposatu du:

- Urteko abonua: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izango da
- Famili bonoaren barruan sartuko dira soilik etxebizitza helbide berdinean erroldatuta dauden familia unitateko kideei . Anai arrebak helbide ezberdinetan erroldatuta egonik ez lukete famili bonoa izango.
- Abonu familiarra: familiako partaide bakoitzaren kuotaren batuketari %10eko deskontua egingo zaio
- Kultur ikastaroen hobari berberak aplikatu. Hobariak Anoetan erroldatutakoei soilik aplikatuko zaizkie.
- Diru-sarrera baxuak dituzten erabiltzaile batzuk kuotaren herena ordainduko dute, edo kuotaz salbuetsita egongo dira, gizarte zerbitzuetako txostenean horrela proposatzen bada. Horretarako, interesatuak bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren agiriak aurkeztu beharko ditu.
- Langabetuen deskontua bakarrik hilabeteko bonoetan aplikatuko da
- Hobari bakarra aplikatuko da, erabiltzailearentzako onena dena.
- Ikastaroetan izena ematen duenari hiruhileko osoa kobratuko zaio, eta ez zaio dirurik bueltatuko lehenago uzten badu.
- Alta edo baja emateko, inprimakia bete behar da kiroldegian. Ahoz esatea ez da nahikoa izango.

### EGUNEKO SARRERAK:

TALDEA	ADINA	EGUNEKO SARRERA
Haurrak	0-15 urte	2,5 €
Gazteak	16-24 urte	3 €
Helduak	25-64 urte	4 €

Eguneroko sarreraren kasuan ez da hobaririk aplikatuko

### KIROLDEGIKO ABONUAK:

TALDEA	ADINA	URTEKOA	HILABETEKOA
Haurrak	0-15 urte	30€	6€
Gazteak	16-24 urte	50€	8€
Helduak	25-64 urte	95€	12€

## AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Zazpigarrena.-** ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ( IBI) dela eta, honako aldaketa proposatu du Alkateak: etxebizitza hutsen errekergoa % 100-era igotzea.

## AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Zortzigarren.-** ZABORREN TASA dela eta, Alkateak honako aldaketak aipatu ditu:

- \*\* Etxebizitzaren kasuan: % 14ko igoera
- \*\* Lokal komertzialak / dendak: % 28ko igoera.

Peio Estanga Alkate jaunaren hitzetan egungo desoreka konpontzeko asmoz proposatu da aldaketa hau.

EAJ-PNV talde politikoaren izenean, Rafael Uribarren jaunak bere kezka adierazi nahi izan du

185.000.-euroko gastuen barruan ez direla aurrikusi udal enplegatuen ordainsari , lan eta ibilgailueko gastuak. Beste aldetik, 112.000.-euroko diru sarrera dagoela planteatuta. Horrela, desoreka 72.000.-euroko litzatekela. Proposatutako aldaketak gutxigorabehera 20.000 -25.000.-euro tarteko igoera suposatuko duela deritzo. Eta azken urtetan ezer igo ez denez, bapateko igoera handiegia dela dirudi.

Peio Estanga Alkate jaunak zehaztu du lehenagoko desoreka 40.000 / 45.000.-euro artekoa zela eta prezio igoera hauek ez dutela udalaren ahaleginekin zer ikusirik. GHK planteatutako igoerak eta Mankomunitateak eginiko 6 urtetako kontratu berriak dira igoera honen arrazoia.

Rafael Uribarren zinegotzi jaunak galdetu du ea ahaleginik egin den gastuak murrizteko. Alkateak erantzun dio Irurako adibidea ikusi besterik ez dagoela ahaleginak nork egin duen ikusteko. Anoetako alderatuz %15a gehiago ordaintzen dute eta gaika bilketan Anoeta baino 20 puntu beherago daude.

Peio Estanga Alkate jaunak erantzun duenez, igoera hilero euro batekoa da eta herritarrak jakin behar du zenbatekoa den defizita. Bi aukera ikusten ditu mankomunitateari ordaindu beharrekoa jaisteko. Batetik errefuxa gutxiago sortu ( orduan gutxiago ordainduko baita) – eta tratamendua garestia baita-. Bestetik konposta komunitarioa burutzea ( orduan ez baita garraioaren kosterik sortuko).

Rafael Uribarren zinegotzi jaunak eskatu du gai hau bereziki lantzeko batzorde edo bilera bat egitea. Alkateak gogora ekarri du, gaur egun, bilketa organikoa astean hiru aldiz egin ohi dela eta errefuxa astea behin. Eta organikoaren kasuan nahi duenak, atez ateko bilketa edo konposta ere aukeran duela.

Peio Estanga Alkate jaunak gehitu nahi izan du “impropios, organikoak ez direnak” izeneko kontzeptuan legeak % 5-eko muga ezarri duela. Anoetan lortu duguna da % 2-a etxebizitzetan eta % 10 taberna-dendetan eta organikoa edukinontzia jarri duten herrietan, inpropioak %5etik gorako emaitza ematen ditu.

Rafael Uribarren zinegotzi jaunak tasaren igoera xumeagoa planteatu nahi du. Hau da, etxebizitzetako kasuan % 5-eko igoera urtero. Eta denda zein lokal komertzial- tabernetan % 10eko igoera. Neurria piskanaka hartzeko asmoz.

Gai hau dela eta, bi proposamen jarri direnez mahai gainean, BOZKETA egin da eta hauek izan dira emaitzak.

Lehen proposamena: zaborraren tasa etxebizitzetako % 14-15 igotzea eta denda-tabernei % 28 igotzea. ALDE: 6 // AURKA: 5

Beraz, gehiengo sinplez **UDALBATZAK ONARTU DU ALDAKETA HAU.**

Bigarren proposamena: zaborraren tasa etxebizitzetako % 5 igotzea eta denda-tabernei % 10 igotzea. ALDE: 5 // AURKA : 6

Udalbatzak ez du onartu bigarren proposamen hau.

**Bederatzigarrena.-** igoera ekonomiko orokorra dela eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Kontsumo produktuen prezioaren indizea, 2019ko abuztuan % 0,7koa izan denez, proportzio honetan igotzea gainerako ordenantza guztietan aurrikusi diren tasa guztiak proposatu du Alkateak.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Hamargarrena.-** aldaketa orokor bat, ordenantza guztietan kontzeptu gisa sartzekoa: FAMILIA UGARIAren definizioa honakoa izango da:

Gurasoek eta seme-alabek osatutako elkarbizitza unitatea, beti ere, seme alabak adin txikiak diren bitartean edota adinez nagusi izanik ere , diru sarrera gabekoak diren neurrian.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**Hamaikagarrena.-** aldaketa bat egitea proposatu da, Udal baliabideen lagapena egitean beste erakundeei edo elkartei FIDANTZAren eskaria dela eta, utzitako materialak egoera onean itzuliko direla bermatzeko eska daiteke, fidantza jarritz.

AHO BATEZ ONARTU DA ALDAKETA

**ONARTUTAKO ALDAKETA GUZTI HAUEK EGUNGO ORDENANTZEN EDUKIA**  
**TXERTATU ONDOREN, OSORIK, ARGITARATUKO DIRA GIPUZKOAKO ALDIZKARI**  
**OFIZIALEAN.**

6.- GALDE-ERREGUAK

6.1.- Rafael Uribarren zinegotzi jaunak hainbat galdera eta erregu egin ditu.

Lehenik, Euskal jaiak direla eta, udaletxeko eraikinean zintzilik agertu ziren zapi edo banderatxo batzuk direla eta, galdetu du ea langileak bertan ziren edo ez. Peio Estanga Alkate jaunak erantzun duenez, Alkate bera zegoen soilik hori gertatzean, larunbata zenez langileak ez zeudela. Rafael Uribarren zinegotzi jaunak kritikatu egin du udal erakundea erabiltzea “arrano beltza” eta “presoak” edukia duten zapiak edo ikurra jartzeko.

Bigarrenik, eskatu du udal eraikinean udal enplegatu edota zinegotzi ez diren pertsonak ez ibiltzea bulego orokorretan.

Hirugarrenik, udal eraikineko zerrailak aldatzea proposatu du, kontrol neurri gisa eta 2020 urteko aurrekontuetan horretarako espezifikoki partida bat aurrikustea eskatuko dutela adierazi du.

Laugarrenik, ingurumen teknikariaren plazagatik, aurkeztuta dagoen berraztertze errekurtsioa dela eta, zehazten den egoera jakin nahi izan du. Abokatuari bidaliko zaiola errekurtsioa erantzun du idazkariak.

6.2.- Gloria Lazcano Arruti andreak, herritar gisa, kexa egin du bere idatziari ez zaiolako idatziz erantzun oraindik, tasa baten kobrantza dela eta.

Peio Estanga Alkate jaunak erantzun dio idatziz jasoko duela erantzuna laster.

Udalbatza amaitutzat eman du Alkate jaunak arratsaldeko 20:00tan.

Hala jasota gera dadin izenpetu du Anoetan, 2019ko azaroaren 21ean.

Itziar Azurza Sorrondegui  
Idazkari -kontuhartzailea